

## BESTELAKO XEDAPENAK

### LAN ETA ENPLEGU SAILA

## 3212

*EBAZPENA, 2021eko maiatzaren 21ekoa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez honako ebazpen honen huts-zuzenketa egiten baita: Ebazpena, 2021eko apirilaren 22koa, argitaratu egiten duena gazte langabeak euskal enpresetan kontratatzeko 2021erako laguntzen deialdia. Lehen Aukera programa*

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuak 18.2.c) artikuluan xedatzen duenez, aldizkarian egindako hutsak edo omisioak maila bereko xedapen edo ekintza batez zuzenduko dira, baldin eta nabarmenak ez badira eta, horiek zuzentzearen ondorioz, agiriaren edukia edo esanahia benetan edo itxuraz aldatzen bada.

Era horretako hutsak atzeman dira gazte langabeak euskal enpresetan kontratatzeko 2021erako laguntzen deialdia, Lehen Aukera programa, argitaratzen duen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2021eko apirilaren 22ko Ebazpenean (2021eko maiatzaren 10eko EHAA, 90. zk.). Hori dela-eta, dagokion zuzenketa egiten da hemen:

– 5.artikuluaren 2.a) apartatuan, 2021/2615 (31/6) orrialdean, honako hau jartzen duen lekuan:

«a) Enpresak zuzenean egindako hautaketa-prozesuan –7.1.a) artikuluan arautua–, Gazte Bermea Sistemari izena emanda egon beharko dute kontratatutako gazteek, kontratua sinatu bezperatik gutxienez, bat etorritik Hazkuntza, lehiakortasuna eta efizientzia sustatzeko urteko laguntza neurriak onartzen dituen urriaren 15eko 18/2014 Legean xedatutakoarekin.»

Hau jarri behar du:

«a) Enpresak zuzenean egindako hautaketa-prozesuan –7.1.a) artikuluan arautua–, Gazte Bermea Sistemari izena emanda egon beharko dute kontratatutako gazteek, kontratua abiatu bezperatik gutxienez, bat etorritik Hazkuntza, lehiakortasuna eta efizientzia sustatzeko urteko laguntza neurriak onartzen dituen urriaren 15eko 18/2014 Legean xedatutakoarekin.»

– 6. artikuluan 1. atalean, 2021/2615 (31/6) orrialdean, 12 hilabete edo gehiagoko kontraturako dirulaguntzaren lehenengo zenbatekoa zuzentzen da; hortaz, honako hau jartzen duen lekuan:

Titulazio akademikoa	12 hilabete baino gutxiagoko kontraturako dirulaguntza	12 hilabete edo gehiagoko kontraturako dirulaguntza	Kontratu mugagaberako dirulaguntza
Lizentzia, ingeniariaritzak, arkitektura, masterra (Bolonia plana), unibertsitate-diplomatura, ingeniariaritzak teknikoak, arkitektura teknikoak eta unibertsitate-gradua (Bolonia plana)	5.300,00 €	8.400,00 €	12.700,00 €
Goi-mailako heziketa-zikloak (LH II)	4.550,00 €	7.280,00 €	10.900,00 €
Erdi-mailako heziketa-zikloak (LH I), oinarritzko lanbide-heziketa eta profesionaltasun-ziurtagiriak	3.500,00 €	5.600,00 €	8.400,00 €

Hau esan behar du:

Titulazio akademikoa	12 hilabete baino gutxiagoko kontraturako dirulaguntza	12 hilabete edo gehiagoko kontraturako dirulaguntza	Kontratu mugagaberako dirulaguntza
Lizentzia, ingeniari-tza, arkitektura, masterra (Bologna plana), unibertsitate-diplomatura, ingeniari-tza teknikoa, arkitektura teknikoa eta unibertsitate-gradua (Bologna plana)	5.300,00 €	8.480,00 €	12.700,00 €
Goi-mailako heziketa-zikloak (LH II)	4.550,00 €	7.280,00 €	10.900,00 €
Erdi-mailako heziketa-zikloak (LH I), oinarriko lanbide-heziketa eta profesionaltasun-ziurtagiriak	3.500,00 €	5.600,00 €	8.400,00 €

– Euskarazko bertsioan, 9.2 artikuluan, 2021/2615 (31/9) orrialdean, kontratua amaitzeko kausa bat gehitu da. Beraz, honako hau jartzen duen lekuan:

«Kontratazioa egin ondoren, kausa jakin batzuk direla-eta kontratua amaitzen bada (probaldia ez gainditzeagatik lan-kontratua amaitzea, kontratatutakoak lana borondatez uztea, edo kontratatutako pertsonaren baliaezintasuna edo heriotza) idatziz jakinarazi beharko dio enpresak Lanbideri, kontratua amaitu eta gehienez ere zazpi eguneko epean, Lanbidek azken dirulaguntza egokitu dezan kontratatutakoak benetan lan egindako aldiaren arabera.»

Hau esan behar du:

«Kontratazioa egin ondoren, kausa jakin batzuk direla-eta kontratua amaitzen bada (probaldia ez gainditzeagatik lan-kontratua amaitzea, kontratatutakoak lana borondatez uztea, bidezkoa deklaraturako kaleratzea edo kontratatutako pertsonaren baliaezintasuna edo heriotza) idatziz jakinarazi beharko dio enpresak Lanbideri, kontratua amaitu eta gehienez ere zazpi eguneko epean, Lanbidek azken dirulaguntza egokitu dezan kontratatutakoak benetan lan egindako aldiaren arabera.»

– 12.artikuluaren 3. apartatuan, 2021/2615 (31/11) orrialdean, honako hau jartzen duen lekuan:

«13.5 artikuluan definitutako trantsizio-prozesuaren kudeaketa- eta jarraipen-jarduerak egiteko erakunde laguntzaile izan daitezke unibertsitateak, Lanbide Heziketako ikastetxe publikoak eta pribatu itunduak, bai eta ikastetxe horiek biltzen dituzten elkarteak ere.»

Hau jarri behar du:

«13.5 artikuluan definitutako trantsizio-prozesuaren kudeaketa- eta jarraipen-jarduerak egiteko erakunde laguntzaile izan daitezke unibertsitateak eta Lanbide Heziketako ikastetxe publikoak eta pribatu itunduak.»

– 12. artikuluan 4. apartatuan, 2021/2615 (31/11) orrialdean, honako hau jartzen duen lekuan:

«Lehen Aukera programari lotutako eskaintzak biltzeko eta erregistratzeko eta/edo trantsizio-prozesuaren kudeaketa eta jarraipena egiteko erakunde kolaboratzailea izateko eskaera deialdi honetako I. eranskin gisa ematen den inprimakiaren bidez bete beharko da. Eranskin hori Interneteko helbide honetan eskura daiteke: <http://www.lanbide.euskadi.eus>.»

Hau jarri behar du:

«Lehen Aukera programari lotutako eskaintzak biltzeko eta erregistratzeko eta/edo trantsizio-prozesuaren kudeaketa eta jarraipena egiteko erakunde kolaboratzailea izateko eskaera Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Publikoaren egoitza elektronikoen bidez aurkeztu behar da (<https://www.euskadi.eus>), eta hara iristeko esteka bat egongo da Lanbideren web-orrian.

Eskabidearen ondorengo izapideak egiteko (jakinarazpenak barne), Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalera jo beharko da: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>. Izapideak elektronikoki egiteko argibideak helbide honetan aurki daitezke: [https://www.lanbide.euskadi.eus/helburua/-/lehen-aukera\\_eu/](https://www.lanbide.euskadi.eus/helburua/-/lehen-aukera_eu/)

Era berean, eskabidea ordezkari baten bidez izapidetu ahal izango da elektronikoki. Horretarako, ordezkariak Eusko Jaurlaritzako Ordezkarien Erregistroan eman ahalko du izena, honako helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/ordezkariek>»

– 13.artikuluaren 5.b) apartatuan, 2021/2615 (31/12) orrialdean, honako hau jartzen duen lekuan:

«Egiaztatzea kontratatutako gazteak Gazte Bermea Sistemari izena emanda daudela, kontratua sinatu bezperatik, gutxienez.»

Hau jarri behar du:

«Egiaztatzea kontratatutako gazteak Gazte Bermea Sistemari izena emanda daudela, kontratua abiatu bezperatik, gutxienez.»

Vitoria-Gasteiz, 2021eko maiatzaren 21a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia,  
MARÍA GLORIA MÚGICA CONDE.